

IKASLEEN TXOKOA 106. ZENBAKIA

Lanbide heziketa

ANIMAZIO SOZIOKULTURALA ETA TURISTIKOA**Egileak:**

Goitik behera, eta ezkerretik eskuinera: Alvaro Botón Hidalgo, Ander Hernández de Campo, Noelia Urruzola Muñoz, Eneka Larrañaga García, Yumara Dávila Ríos, Nahia Cuevas Etxabe, Laura Azkue Martín, Irene Tejedor Martínez, Laura Rodríguez Manzano, Malen Urrusolo Fernández, Jon Ander Sánchez Martín, Eneritz Galdós Elosegui, Leire Etxabe Irure.



«...Hau da nerea, gustatzen zait», eta horrekin gelditu nintzen

Zein da Mikel?

Arabako hiriburuko, Gasteizeko, 21 urteko mutil gazte bat naiz, Hernanira Goi Mailako Ziklo bat ikastera etorri naizena, zehazki.

Zer egiten duzu Hernaniko Lanbide Heziketan?

Lehen aipatu bezala, gaur egun, Goi Mailako Ziklo bat ikasten ari naiz. Izan ere, orainean, Sistema Elektrikoa eta Automatiko zikloaren bigarren mailan aurkitzen naiz. Gainera, Hernaniko Lanbide Heziketak nire zikloan Duala egiteko aukera ematen dit.

Sistema Elektrikoa eta Automatikoa. Arrazoiaren bat badago ziklo hori aukeratzeko?

Ziklo hau aukeratu nuen, batez ere, betidanik elektrizitatearen mundua erakarria iruditu izan zaidalako. Gainera, iada 4 urte daramatzat elektrizitatearen inguruko ikasketak gauzatu. Aurtengo ikasturtea nire 6. urtea izango litzateke mundu honetako ikasketetan murgilduta. Egia esan, oso gustura nago zikloarekin, azken batean, txikitatik izan nahiz abila eskulanak egiten, ez hori bakarrik, mugitua ere izan naiz. Hori dela eta, eraikitzearekin zer ikusia duten jolasak eman izan zizkidaten, adibidez, 3D-ko puzzleak eraikitzearekin hasi nintzen. Ondoren, 3D-ko puzzle horiek argiekin eraikitzen hasi nintzen. Eta une horretan ohartu nintzen argien zein motorren mundua erakarria egiten zitzaidala. Beraz, ordundik aurrera, sorgailuak eraikitzen hasi nintzen, eta bide horretatik, egun batean sorgailu bat eraikitzen ari nintzen bitartean elektrokutatu egin nintzen, eta une horretan pentsatu nuen: "Hau da nerea, gustatzen zait", eta horrekin gelditu nintzen.

Lan munduan, zure burua non ikusten duzu?

Nire burua, egia esan, enpresa bateko buruzagi bezala ikusten dut, ez dut nire burua mugatuko obra bateko langile soil gisa izateari, espektatiba altuak dauzkat, egia esan. Izan ere, lan munduan dudak esperientziarekin eta izango dudarekin, iruditzen zait iritsi naitekeela enpresa bateko burua izatera.

2023an, Eusko Skills irabazi zenuela aurkitu dugu.

Kontatzerik bai proiektuaren inguruko bizipenik?

Hori da, bai. Eusko Skills lehieketa irabazi nuen, lehen postuan

gelditu nintzan Sistema Elektrikoa eta Automatikoaren mailan, Urnietako eta Tolosako beste ikasle batzuek osatuz podiuma. Esan dezakegu, Gipuzkoako hiru ikasle nagusitu ziala lehiaketan. Proiektuan egin genuena etxebizitza-instalazio domotikoa izan zen, automatismo industrialak, hain zuzen, garaje automatizatu bateko atea izango litzatekeena, beste era batera esanda. Proiektua aurrera eramateko logo programa erabili izan genuen, industriaren erabiltzen den automatismoa, alegia. Egia esan nahiko interesgarria izan zen. Hasieran panela montatu behar izan genuen, kanaletak eta jarri, erabili behar genuen guztia jarri ondoren, kableatuarekin jarraitu genuen, programazioarekin amaituz.

Zure etorkizuneko plangintza azaldu.

Ikasturte hau amaituta gero, Herbeheretara joatea pentsatuta dut, bertako enpresa batek lan eskaintza bat egin zidalako, eta nola, munduan zehar bidaiatzeko irrika dudak, toki berriak ezagutzeko gogoa, aukera ezin hobea iruditzen zait pausoa emateko. Hasiera batean, Europa mailan zehar ibiltzea gustatuko litzaidake, gero ea noraino iristen naizen, beti ere, bizipen berriak jasotzeko irekita nago. Dena den, egunen batean berriro itzuliko naiz, baina ez nago ziur noiz.

Aholkuren bat eman diezaiokezu gaur egungo elektrizitateko ziklo bat hasi duen nerabe bati?

Elektrizitateko ziklo batean sartu berri den ikasle bati eman diezaiokedan aholkuetako bat hasiera batean lasai hartzea da. Bigarrenik, irakasleek esaten dutenari kasu egitea, nik bere garaian esaten zutena kontuan hartzen ez nuenez, beste modu batera ikasi behar izan dut, eta irakasleek esaten dutena oso ondo dago, beharrezko gauza guztiak irakasten dituztelako, eta nik beraiei kasurik ez egitea gatik, elektrizista batek izan behar dituen oinarriko jakintzak, beranduago nire kasaka ikasi behar izan ditut, bere garaian egin beharrekoea ez egiteagatik. Azkenik, esango nieke, elektrizitateari beldurrik ez izateko, baizik eta, errespetua izatea, azken batean, elektrizitateari beldurra duen elektrizista bazara, ez zara elektrizista ona izango. Horrez gain, zikintzeko

beldurrik ez izan. Hauek dira nerabe bati eman diezazkioke-dan aholkuak.

Egileak: Irene Tejedor eta Eneka Larrañaga



Zuzendaria, Mikel eta irakaslea.



Podiumean lehenengoa. Eusko Skill



Irakaslea eta erakusketarako montaiia

Iritzi artikulua

GURE MERKATARITZAREN HERIOTZA GURE HERRIEN HERIOTZA

Gremioetako bizitzak herriaren bizitasuna ekarri zuen gure kulturetara. Historiaren etapa hura ezinbestekoa izan da gure gizartea aurrera eramateko. Dena dela, ahaztu egin ahal gara gure arbasoen lanaz?

Hernanin zein beste lurraldetan kezagarria da tokiko merkataritzaren desagerraraztea. Mundu globalean eragina duen auzia da, izan ere, enpresa multinazionalak merkataritza

txikiak jan dituzte.

Zergatik gaur egun, ordea, multinazionalen erosten dugu gehien bat? Inkontzienteki bezeroen arreta lortzen dute, gehien bat merkataritza txikiak eskaintzen duten produktua prezio baxuagoan eskainiz. Hori dela eta, egungo ekonomia mailarengatik, biztanleriaren gehiengo batek, merkerak jotzeko bidea hartzen ari da, garai bateko esku lanaren garrantzia ahaztuz.

Ondorioz, produktuen kalitatea albo batera uzten ari gara, hilabete amaierara iritsi ahal izateko. Hala ere, arazo honen aurrean gure eskubideak aldarrikatzen ez baditugu, gure herrietako bizitza iluna zein beltza bihurtuko da. Hau da, gure herriko merkataritza hiltzen bada gure HERRIKO BIZIA HILKO DA!!!

Egileak: Irene, Eneka, Malen, Laura R. Jonan eta Alvaro



IRITZI ARTIKULUA RENFE

Gaur egun nabaria da Renferen egoera txarra, kaskarra. Eta hori aldatu nahian iritzi artikulua hau idazten dugu, iritzi artikulua honetan hasieran esan dugun egoera kaskarraren adibideak emango ditugu. Denboralizazio aldetik esan dezakegu ia gehienetan berandu etortzen dela edo tren bertan behera geratzen dela, beraz; egun horretan zerbait garrantzitsua badaukazu adibidez azterketa batean ez daukazu ziurtatuta tren hori garaiz, berandu edo bertan behera geratuko den.

Beste alde batetik; esan dezakegu tren gehiago daudela Irunitik-Brinkolara, Brinkolatik-Irunera baino. Horrez gain,

tren geltoki batzuk ez daude egokituta desgaitasun bat duten pertsonentzat, beraz garrantzitsua iruditzen zaigu aniztasuna eta inklusioa sustatzea.

Honen arira; esan dezakegu komunikazio aldetik ez dagoela herri guztiekin komunikaziorik eta herrialde horietako batzuk Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Hondarribi, Lasarte Oria... Hernanira ikastera etortzen diren bi ikasle Azpeitikoak dira eta beraz ez daukatenez aukerarik Renferekin bidaiatzeko bi autobus hartu behar izaten dituzte eta gainera oso goiz esnatu behar dute eskolara garaiz iristeko.

Baina beste ikasleek Renfe erabiltzen dituzten pertsonak

kexu dira trenean segurtasun eta higiene falta asko nabarmentzen dutelako. Eserlekuak zikinak daudenez ez da eroso bertan esertzea.


Hala ere, Renferen alde, alderdi positibo bat nabarmentzea garrantzitsua iruditzen zaigu, alderdi hori abono txartela edukitzea, ateratzea da. Soilik 10€ ordainduz 16 bidai egiten badituzu abonoaren iraupena amaitzerakoan ordaindutako tasa itzultzen dute. Gainera, abono hau lau hilabeterako baliagarria da.

Egileak: Leire, Nahia Yumara, Noelia, Eneritz, Laura A. Eta Ander




Denborapasak

7 DIFERENTZIAK AURKITU (ALVARO BOTÓN ETA JON ANDER SÁNCHEZ):



Erantzunak:



HIZKI ZOPA (LEIRE ETXABE, NAHIA CUEVAS ETA YUMARA DAVILA)

D	C	I	D	E	N	T	I	T	A	T	E	A	D	I
G	I	Z	O	N	E	Z	K	O	A	U	F	U	I	E
S	S	E	X	U	A	L	I	T	A	T	E	A	F	R
N	Y	E	M	A	K	U	M	E	A	S	E	V	E	A
B	E	R	D	I	N	T	A	S	U	N	A	A	R	L
S	P	D	G	G	G	E	N	E	R	O	A	P	E	D
V	C	G	S	S	Z	J	R	I	H	E	E	G	N	A
I	N	K	L	U	S	I	O	A	W	Z	K	J	T	K
E	S	K	U	I	N	A	K	W	Z	L	X	E	Z	E
F	T	Z	A	G	O	R	P	U	T	Z	A	W	I	T
O	P	O	R	T	U	N	I	T	A	T	E	A	A	A
D	E	S	B	E	R	D	I	N	T	A	S	U	N	I
K	A	J	Q	I	E	R	R	E	S	P	E	T	U	A
B	I	Z	K	O	R	T	A	S	U	N	A	V	M	M
S	P	U	F	E	M	I	N	I	S	M	O	A	G	U

- Berdintasuna
- Desberdintasun
- Emakumea
- Feminismoa
- Gizonezkoa
- Identitatea
- Oportunitatea
- Sexualitatea
- Inklusioa
- Gorputza
- Generoa
- Eskuinak
- Eraldaketa
- Diferentzia
- Bizkortasuna

D	C	I	D	E	N	T	I	T	A	T	E	A	D	I
G	I	Z	O	N	E	Z	K	O	A	U	F	U	I	E
S	S	E	X	U	A	L	I	T	A	T	E	A	F	R
N	Y	E	M	A	K	U	M	E	A	S	E	V	E	A
B	E	R	D	I	N	T	A	S	U	N	A	A	R	L
S	P	D	G	G	G	E	N	E	R	O	A	P	E	D
V	C	G	S	S	Z	J	R	I	H	E	E	G	N	A
I	N	K	L	U	S	I	O	A	W	Z	K	J	T	K
E	S	K	U	I	N	A	K	W	Z	L	X	E	Z	E
F	T	Z	A	G	O	R	P	U	T	Z	A	W	I	T
O	P	O	R	T	U	N	I	T	A	T	E	A	A	A
D	E	S	B	E	R	D	I	N	T	A	S	U	N	I
K	A	J	Q	I	E	R	R	E	S	P	E	T	U	A
B	I	Z	K	O	R	T	A	S	U	N	A	V	M	M
S	P	U	F	E	M	I	N	I	S	M	O	A	G	U

SUDOKUA (LEIRE ETXABE, NAHIA CUEVAS ETA YUMARA DAVILA)

	6		1		4		5	
		8	3		5	6		
2								1
8			4		7			6
		6				3		
7			9		1			4
5								2
		7	2			9		
	4		5		8		7	

9	6	3	1	7	4	2	5	8
1	7	8	3	2	5	6	4	9
2	5	4	6	8	9	7	3	1
8	2	1	4	3	7	5	9	6
4	9	6	8	5	2	3	1	7
7	3	5	9	6	1	8	2	4
5	8	9	7	1	3	4	6	2
3	1	7	2	4	6	9	8	5
6	4	2	5	9	8	1	7	3

ASMAKIZUNAK (LEIRE ETXABE, NAHIA CUEVAS ETA YUMARA DAVILA)

- Botilaren muturrean naukazu eta ezinezkoa da edatea, baina ni askatzean hobe duzu bi ezpainak ondo ixtea. Zer da?
- Gona luzea du, mihia motza, urrutitik entzuten da haren kantu hotsa.
- Gogorra eta ezitia. Gabonetako jakia. Zer da?
- Izaganatik txikia gela handira sartzean betetzen du guztia. Zer da?
- Udan jendez beterik, neguan huts-hutsik; zutik baino jende gehiago egoten da han etzanik. Zer da?
- Uniformedun gudaria zuri eta gorriak, gerra ostean, ordea, buru beltzak eta erreak. Zer da?
- Kristal polita beti bustita, nahi dugu udan badugu neguan. Zer da?
- Klean bizi naiz eta oso argala naiz. Hiru begi ditut: berdea, gorria eta laranja. Zer naiz?
- Eskolako gauza bat da eta erabiltzen baduzu, gauzak desagertzen dira! Zer naiz?
- Animalia ornoduna, gizakiaren laguna, maiz ehiztari eta itsuen laguntzailea. Zer naiz?

ASMAKIZUNEN ERANTZUNAK:

1. B hizkia
2. Kanpaia
3. Turroia
4. Kandela
5. Hondartza
6. Pospoloa
7. Izotza
8. Semaforoa
9. Borragoma
10. Txakurra